

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIA

844

8/2023 EBAZPENA, otsailaren 7koa, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko lehendakariarena, enplegua egonkortzeko ezohiko prozesuan onartutako eta bazter utzitako izangaien behin-behineko zerrenda onartzen duena, Herri-Kontuen Euskal Epaitegian Auditore Laguntzaile lanpostua betetzeko.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren abenduaren 1eko 70/2022 Ebazpenaren bitartez (abendua-ren 29ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 248 zk.) lehiaketa bidez lanpostua egonkortzeko ezohiko prozesua deitu zen, karrerako funtzionario moduan Herri-Kontuen Euskal Epaitegian Auditore Laguntzaile plazak betetzeko; prozesua 2022ko ezohiko enplegu publikoaren eskaintzari dagokio, zeina salbuespenezkoa baita.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegian enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuen oinarri espezifikoean eta oinarri orokorretan aurreikusitakoaren arabera arautuko da hautaketa-prozesua. Oinarri horiek azaroaren 30eko 67/2022 Ebazpenaren bidez onartu ziren (2022ko abenduaren 28ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 247. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, eta oinarri orokorren seigarren oinarriko 2. atalean ezarritakoaren arabera, bidezkoa da prozesuan onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartzea Lehendakariaren ebazpen bidez. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren iragarki-oholean eta web orrian argitaratuko da. Interesdunei 10 eguneko epea emango zaie erreklamazioak aurkezteko eta bazter uztea eragin duten akatsak edo agiriak zuzentzeko. Aurreikusitako epean erreklamaziorik aurkeztu ezean, behin-behineko zerrenda behin betiko zerrenda bihurtuko da.

Hori guztiori aintzat hartuta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Onartzea enplegua egonkortzeko ezohiko prozesuan onartutako eta bazter utzitako izangaien behin-behineko zerrenda, Herri-Kontuen Euskal Epaitegian Auditore Laguntzaile lanpostua karrerako funtzionario gisa betetzeko, ebazpen honen eranskinean jasota dagoen moduan.

Bigarrena.– Onartutako eta bazter utzitako izangaien zerrenda argitaratzea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren iragarki-oholean eta web orrian.

Hirugarrena.– Interesdunei 10 eguneko epea ematea erreklamazioak aurkezteko eta bazter uztea eragin duten akatsak edo agiriak zuzentzeko.

Laugarrena.– Erreklamaziorik ez bada, behin-behineko zerrendak behin betiko zerrenda bihurtuko dira automatikoki.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 7a.

HKEEko lehendakaria,
ANA HELGUERA LÍBANO.

HKEEko idazkari nagusia,
JULIO ARTETXE BARKIN.

2023ko otsailaren 17a, ostirala

ERANSKINA

LANPOSTUA: AUDITORE LAGUNTZAILEA

ONARTUTAKO IZANGAIEN ZERRENDA

| Dokumentua | Abizenak eta izena |
|------------|----------------------------------|
| ***8695** | Aguayo Benito, Maria Montserrat |
| ***4123** | Alonso Moso, Ana |
| ***1810** | Briongos Camara, Margarita |
| ***3276** | Chasco Marquinez, Iratxe |
| ***9045** | Cuende Mateo, Laura |
| ***2281** | Egido Aldeiturriaga, Maite |
| ***5484** | Escalona Ochoa, Borja |
| ***8290** | Espiga Maraña, Maria Del Valle |
| ***4339** | Garro Lejarraga, Maddi |
| ***4126** | Gonzalez Liceaga, Janire |
| ***8815** | Guerrero Gomez, Mikel |
| ***8869** | Lasa Ribas, Maria Aranzazu |
| ***1617** | Luja Ribera, Maria Ines |
| ***7055** | Ortueta Gonzalez, Jone |
| ***8023** | Ortuzar Irigorri, Javier |
| ***6201** | Pinacho Carmona, Maite |
| ***8217** | Pizarro Martinez, Maria Elena |
| ***7281** | Quintana Llaguno, Angel Maria |
| ***1768** | Ruiz Hernandez, Maria Inmaculada |
| ***7579** | Saenz Barturen, Laura |
| ***9232** | Sainz Garcia, Vanessa |
| ***5704** | Sistiaga Perez, Carla |
| ***0090** | Zubizarreta Elicegui, Miguel |

BAZTER UTZITAKO IZANGAIEN ZERRENDA

| Dokumentua | Abizenak eta izena | Bazterturik Uzteko Arrazoiak |
|------------|--------------------|------------------------------|
| ***3650** | Bango Vigo, Iratxe | TI |

Bazterturik uzteko arrazoiak

PI

Baztertzeko Arrazoiak

Ez du titulazio-betekizuna betetzen